

Aitor Bouzo: "Futboleant beti dago zer ikasia"

Empresaritzak ikasi bazuen arren, oso gazte zela, Ermuko futbol taldean hasi eta azken urteotan, bigarren mailako hainbat taldeetatik igaro da. Aurten Barakaldo taldean dabil, eta momentuz, denbo-

raldia ezin hobeto doakie, Bigarren A mailara igotzeko sailkatze fasean sartzeaz gain, 15 golekin, multzoko golegile nagusia bera baita. 31 urte beteak baditu ere, jarraitzeko gogoak ez omen zaizkio oraindik agortu.

DROGETENITTURRI- NOIZ UTZI ZENUEN ERMUKO FUTBOL TALDEA?

Aitor Bouzo- Manolo Alvarez-en eskutik, 16 urterekin Ermuko Preferente mailako taldean hasi nintzen. 4 denboraldi egon ostean, 20 urterekin Durangoko taldera joateko eskeintza jaso nuen.

D.- ETA DURANGON EGON OSTEAN BESTE TALDE BATZUK ETORRIKO ZIREN....

A.B.- Durangon hiru urte egon ostean, Sestao taldean beste bost eman nituen. Bigarren A mailara iristea ere lortu nuen. Garai haietan,

ikasi, lana eta futbola batera egiten nituen. Ez nintzen jokalaririk profesionala. Ondoren, Cordoba taldeak kontratu profesionala eskeini zidan eta geroztik, futboleant aritzen naiz soilik. Urtebete Andaluzia aldean egon ostean, Andorran beste bat eta aurten Barakaldo taldean jokatzen dut.

D.- FUTBOLA NOIZ UTZIKO DUZUN ERABAKI AL DUZU?

A.B.- Iaz, herniako ebakuntza izan nuen eta une gogorrek pasa nituen. Uztea ere pentsatu nuen, baina onik atera nintzen eta fisikoki ondo

eta jarraitzeko ilusioz nagoenez, ez dut momentuz pentsatu. Gustoko lanen bat aurkituko banu, erabaki egin beharko nuke.

D.- EZ AL DUZU FUTBOLA UTZI OSTEAN ENTRENATZAILE IZAN NAHI?

A.B.- Ez. Nik entrenatzaile izatea baino, nahiago dut jolastea. Ez dut nere burua aulkian ikusten.

D.- ORAIN ARTEAN SARTU DUZUN GOL AHAZTEZIN BAT?

A.B.- Gogoan dut, Sestao taldean nengoela, Bigarren A mailara igotze-



ko ligatxoan, Castellon taldearen aurka sartu nuena. Urte oso gogorra izan zen. Itxialdia ere egin genuen, ez baikenuen sosik ere kobratzen. Dena dela, igoera lortu genuen eta gol harek zerbaiteko balio izan zuen.

D.- GUSTOKO DUZUN AURRELARI BAT?

A.B.- Van Basten bere garaian oso gustoko nuen, aurrelari ona eta garaia baitzen.

D.- BETE GABEKO AMETSIK?

A.B.- Bai, Camp Nou-n jolastu ez izana.

D.- ZE ABERASTUN EMATEN DU FUTBOLAK, BERARI HAINBAT URTE ESKEINI OSTEA?

A.B.- Nire ustez bizitzan gustoko duzuna egitea gutxiren esku dago. Nik futboleant asko disfrutatzen dut, egunero daukat gauza berriren bat ikasteko. Horrez gain, hainbat talde-tan ibili ostean, kultura ezberdinen ezagutza, beste herrietako pentsakerak, lagun onak, partiduetako giro politak... asko eskeini dit zorionez.

Testua: Asier Ibaibarriaga
Argazkiak: Santos Vega

ZABAL



ERMUA

MASAIA TERAPEUTIKOA
ETA ESTETIKA

ARCOS

Zeharkalea, 12 - M^a LUISA RODRIGUEZ
Entlo. - 1. ate
Tlf. (943) 17 63 81

AHOLKULARITZA FISKAL eta LEGALA

URIARTE IRAEGUI, S.L.

Valdespinako Markesa, 14 - behe
Telefona: 17 33 87 • 48260 ERMUA (Bizkaia)

goienkale 9 (san martin plaza)
telf. (943) 17 66 90 - ermua

IZASKUN
ileapaindegia

ZABALA
BURDINDENDA

ETXE HORNIDURA
BRIKOLAJEA
OPARIK
ELEKTRIZITATEA
Zubiaurre, 27
Tfnoa. 17 09 17

optika
itze

Probaleku, 7

Tfnoa. 17 46 71



LURPE
ERMUA



opariak
arropa informala

ECAINE

Karabixa 1. zbk. behe

DROGETENITTURRI

QUETZAL

Opari denda
Zure gustokoa izan dadila!

Goienkale kalea 17 43 62

BANAKETAK
Arrol, 97 s

BANATZAILEA:

- LUIS CAÑAS Bodegak - LOS CURROS Bodegak - JAUME SERRA Cavak eta Ardoak
- ITURRI Kontserbak - ILLUMBE Sagardo Naturala
- BASARANA Patxarana- RAIMAT - CODORNIU Bodegak Cavak
- LAUREN,S & DANNY garbiketa produktuak

Goitondo Goikoa Poligonoa, 3
Telefona (943) 17 60 75
48269 MALLABIA (Bizkaia)

171 Posta Kutxa - 48260 ERMUA (Bizkaia)